SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2020

Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain
T. 943 592 556

kluster@soziolinguistika.eus
www.soziolinguistika.eus
slklusterra
@slklusterra

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

Soziolinguistika Klusterrak ikerketa, garapen eta berrikuntza **proiektuak eginez** eta bertako zein nazioarteko soziolinguistika **ezagutza kudeatuz** egiten dio ekarpena euskararen gizarte garapenari.

Ezagutza zorrotza eta fidagarria eskuratzeko, **metodo zientifikoa baliatuz** jarduten du unibertsitate esparruko ikerlariekin, administrazio publikoarekin, enpresa pribatuekin eta euskararen aldeko gizarte mugimenduekin **elkarlanean**. Soziolinguistika Klusterrak euskararen hiztun komunitateari ekarpena egiteko xedez, sortutako ezagutza soziolinguistikoa **gizartean ahal bezainbeste hedatzeko bokazioa** du.

(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
URTEKO TXOSTENA 2020

Osaketa grafikoa: ZIRRIMARRA ESTUDIO GRAFIKOA
Martin Ugalde Kultur Parkea • 20140 ANDOAIN

BAZKIDEAK

OHOREZKO BAZKIDEA:

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ERAKUNDE BAZKIDEAK:

- Artez Euskara Zerbitzua
- BAI Euskarari Elkartea
- Bermeoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Ebete elkartea
- Elhuyar Aholkularitza
- Emun Kooperatiba Elkartea
- Erandioko Udala
- Errenteriako Udala
- Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkartea
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskaltzaleen Topagunea
- Euskaraz Kooperatiba Elkartea (AEK)
- Eusko Ikaskuntza
- Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
- Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
- Hernaniko Udala
- HUHEZI Koop. E. Mondragon Unibertsitatea (MU)
- Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa
- Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkartea (NETLE)
- Sakanako Mankomunitatea
- Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)
- Zumaiako Udala

NORBANAKO BAZKIDEAK:
71 pertsona

URTEKO TXOSTENA 2020
AURKIBIDEA

1 **Lehendakariaren agurra** ..... **4 or.**

2 **Nortasuna eta egitura** ..... **5 or.**

3 **Hausnarketa estrategikoa** ..... **7 or.**
- 3.1 2020-2023 epealdirako ildo eta helburu estrategikoak ..... 8 or.

4 **PROIEKTUAK** ..... **9 or.**
- 4.1 Gazteak Euskararen Eszenatokian. Erabileraren Auzia ..... 10 or.
- 4.2 Hizkuntza Aniztasunaren Mapak ..... 11 or.
- 4.3 Arrue ..... 12 or.
- 4.4 Aldahitz ..... 13 or.
- 4.5 Eusle Metodologia Hezkuntzan ..... 14 or.
- 4.6 Hizkuntza-Ohiturak Osakidetzan ..... 14 or.
- 4.7 Hizkuntza Ohiturak Eremu Afektiboan ..... 15 or.
- 4.8 Jendaurrean Erabili ..... 16 or.
- 4.9 Gipuzkoa Berdinago ..... 17 or.
- 4.10 Eralan5 ..... 18 or.
- 4.11 Tokian Tokiko Hizkuntza Aktibazioa ..... 19 or.
- 4.12 Euskara Kirolkide ..... 20 or.
- 4.13 Berbekin ..... 21 or.
- 4.14 Berba-Lapiko ..... 22 or.
- 4.15 Ahozko komunikazioaren gaineko ikastaro eta mintegiak ..... 23 or.
- 4.16 Euskararen Adierazle Sistema (EAS) ..... 24 or.
- 4.17 Hizkuntzen Erabileraren Neurketak Euskal Herriko Unibertsitatean ..... 25 or.
- 4.18 Hizkuntzen Erabileraren Neurketak ikastetxeetan eta kirol taldeetan ..... 26 or.
- 4.19 Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa. Euskal Herria, 2021 ..... 26 or.
- 4.20 Euskara eta Berrikuntza Laborategia ..... 27 or.
- 4.21 Txillardegi-Hausnartu Soziolinguistika Sariak ..... 28 or.
- 4.22 Euskal Soziolinguistika Jardunaldia. Nerabe Eta Gazteen Hizkuntza Errealitatea ..... 29 or.
- 4.23 Bat Soziolinguistika Aldizkaria ..... 30 or.
- 4.24 Soziolinguistika Albistaria ..... 31 or.

5 **Lankidetzak, harremanak eta bestelakoak** ..... **33 or.**
- 5.1 Proiektuei lotutako hitzaldi eta aurkezpenak ..... 33 or.
- 5.2 Lankidetzak eta partaidetzak ..... 34 or.
- 5.3 Barne-komunikazioa eta formakuntza ..... 34 or.

6 **Balantze ekonomikoaren laburpena** ..... **35 or.**

1

Mikel Irizar Intxausti.
Lehendakaria

Lehendakariaren agurra
2020ari buruz

Ikerkuntzan diharduen erakunde batean, urte bakoitza da berezia. Baina 2020a berezietan bereziena izan da. Gure belaunaldiak ezagutu gabeko egoera muturrekoa jasatea tokatu zaigu, sufrimendua eragiteaz gain bizitza soziala zeharo uzkurtu duena. Ondorioz, euskarak ere kaltea jaso du; hurrengo urteetan ikertu beharko da nolakoa.

Soziolinguistika Klusterrak, haatik, ondo eutsi dio pandemiaren astinduari. Kudeaketa zentzuduna eta jarraipen hurbila medio, emaitza ekonomikoa orekatzea lortu da eta jarduerari duin eustea.

Pozgarria izan da 2020an Euskal Herriko Unibertsitatearen bazkidetza formalizatzea eta Zuzendaritza Batzordearen partaide aktibo bihurtzea. Zuzendaritza handitze horretan beste bi ordezkari ere sartu dira: UEMArena eta Klusterraren Bulego Teknikoarena. Horrekin batera, ekainean online egin genuen Batzar Orokorrean, lehendakari aldaketa gauzatu zen. Eusko Ikaskuntzaren ordez neuk hartu nuen kargua, eta aipatzekoa da Batzarrak aurreko lehendakari Maddi Etxebarriari erakutsi zion esker ona.

Aurrez abiatutako gogoeta estrategikoa lau urteko Plan Estrategikora eraman dugu, prozesu aberasgarri baten ondoren; eta gogotsu ekin diogu Planean jasotzen diren proiektu estrategikoei. Hasteko, euskararen biziberritze prozesuan ezagutza soziolinguistikoak egin lezakeen ekarpena aztertzen ari gara, gure erakundearen etorkizuneko bilakabidea antzemateko.

Mugarri esanguratsua izan da 2020an Nafarroako Gobernuaren Euskarabidearekin hitzarmena lotu izana, orain arteko lankidetza indartze bidean; baita ere Kutxa Fundazioa babesle aktibo izatera itzultzea. Biak dira areagotu nahi dugun lankidetza egonkorraren adibide.

Proiektuen artean, albiste izan zen Aldahitz ikerketaren baitako Uler-saioak metodologia aurkeztea, hizkuntza ulermena berariaz lantzeko. Proiektuak garapena izango du hurrengo urteetan, hautu desberdineko hiztunen artean distantzia azkar murrizteko tresna gisa.

Hizkuntza-ohiturak eraldatzeko metodologiak lehen aldiz eremu afektiboetan (bikote eta lagunarteetan) aplikatzeko proba pilotuak jarri ditugu martxan Arabako lautadan.

Hizkuntza aniztasunaren mapei dagokienean, Bizkaia eta EAE mailako azterketen txanda heldu da. Euskararen lurraldean beste hizkuntzek duten presentzia ezagutzeko bidean aurrera urratsak ematen jarraitzen dugu.

Gazteen hizkuntza errealitatea aztertzen duen ikerketa sakonaren emaitzak eman ditugu ezagutzera 2020an. Testuinguru soziolinguistiko anitzetan hizkuntzarekin lotutako bizipenak, diskurtsoak eta praktikak gertuagotik ezagutzeko saiakera izan da. Euskararen egoerari dagokionez, beti kezka iturri eta beti itxaropenen gordeleku da gazteen taldea. Horregatik da beti interes-gune. Gainera, aurtengo Euskal Soziolinguistika Jardunaldia, azken ikerketa kualitatibo horren emaitzez gain, nerabe eta gazteen gaineko beste hainbat ikerketa eta esperientzia partekatzeko baliatu genuen. Ehun lagunetik gora lotu ginen streaming bidez gaiari ikuspegi desberdinetatik begiratzeko eta aurrera begirakoaz elkarrekin hausnartzeko.

Ahozkotasuna ikasgeletan lantzeko metodologien inguruko lan-ildoa aurrera doa eta emaitza berritzaile bezain interesgarriak eskaintzen ari zaizkie hezkuntzaren eremuko profesionalei. Emaitza horien zabalpenari ekin zaio 2020an.

Tokian tokiko hizkuntza aktibazioaren gaineko ikerketa proiektuaren emaitzek, txosten formaz gain, aktibaziorako prozesua eta gakoak proposatzen dituen euskarri arin eta erabilgarriaren forma hartu dute. Herrietan prozesu horiek subjektu diren pertsona eta taldeek egunerokoan erabiltzera bideratutako esku-orri tolesgarria argitaratu eta banatu da.

Urte honen errepasoan, ezin aipatu gabe utzi beste bi gertaera nabarmen eta pozgarri. Batetik, urteko lehen asteetan Bulego Teknikoko kide batek Ekuadorren Garabide eta Sisariy elkarteek antolatutako Kitxuaren Biziberritze Estrategietako Lehen Nazioarteko Ikastaroan parte hartu izana. Bestetik, abenduan, hizkuntza-ohituren aldaketarako metodologien sorrera proiektuetan lankide dugun Pello Jauregi ikerlariaren lana eta ibilbidea Abbadia Sariarekin aitortua izan dela.

Urte zaila izan da alde askotatik, baina oparoa gurean. Mila esker lantaldeari eta zuzendaritzari, zein bazkide, babesle eta bidelagunei. Eta animo guztioi!

2

NORTASUNA ETA EGITURA

Nor gara, nora goaz eta nola antolatzen gara

Misioa

Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren beharrei erantzuteko.

Hori lortzeko lanean diharduten eragileen soziolinguistika alorreko gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu.

Horretarako, proiektuak garatzen ditu elkarlanean, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz.

Bisioa

Soziolinguistika Klusterrak euskara biziberritzeko erreferentziazko ikergune izan nahi du, euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan eragile papera hartuz eta berrikuntza bultzatuz.

Balioak

- **Zientifikotasuna:** metodo zientifikoan oinarrituta zorroztasunez dihardu eta horrek eragileekiko autonomiaz jokatzeko zilegitasuna ematen dio.
- **Elkarlana:** osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren markoan.
- **Gizartearekiko ardura:** euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoia eta egindako proiektuen emaitzak gizarte-mailan zabalduko ditu gardentasunez. Gainera, arduraz jokatuko du bestelako gaietan ere gizarte berdinzaleago baten alde, besteak beste, genero berdintasunean, iraunkortasunean eta diskriminazioen aurka.
- **Lurraldetasuna:** euskararen lurralde guztietan jarduteko bokazioa du.

ERABAKI-GUNEAK

Batzar Orokorra

Bazkide guztiek dute Batzar Orokorraren erabakietan parte hartzeko eskubidea. Aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzen ditu. 2020an ekainaren 18an bildu zen Soziolinguistika Klusterraren Batzar Orokorra online bileran.

Zuzendaritza Batzordea

Batzar Orokorrak izendatutako bazkideek osatzen dute. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko beharrezko erabakiak hartu eta egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia. 2020an hauek osatu zuten:

- Mikel Irizar (Eusko Ikaskuntza) - Lehendakaria
- Mertxe Mugika (AEK) - Lehendakariordea
- Jasone Mendizabal (Euskaltzaleen Topagunea) - Diruzaina
- Maite Asensio (Gipuzkoako Urtxintxa Eskola)
- Anaida Agirre (Emun Kooperatiba Elkartea)
- Estiñe Astorkia (Artez Euskara Zerbitzua)
- Jon Zarate (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- Maddi Etxebarria (Elhuyar Aholkularitza)
- Miren Segurola (UEMA)
- Nekane Arratibel eta Eneritz Garro (HUHEZI – Mondragon Unibertsitatea)
- Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoa)
- Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoa) -Idazkaria

BULEGO TEKNIKOA

Bulego Teknikoaren ardura da Soziolinguistika Klusterraren helburuak, estrategiak eta proiektuak kudeatu eta garatzea. Horiek arduratzen dira, aipatu bezala, Soziolinguistika Klusterraren helburu, estrategiak, ikerketa, garapen eta berrikuntza nahiz ezagutza kudeatzeko proiektuak kudeatzeaz. 2020an 9 lagun izan dira bulegoko kide:

- Olatz Altuna Zumeta
- Asier Basurto Arruti
- Olatz Bengoetxea Manterola
- Isabel Godinez Hidalgo
- Maialen Iñarra Arregi
- Amaiur Irastortza Adin (Praktikaria)
- Imanol Larrea Mendizabal (Zuzendaria)
- Jon Salaberria Sansinenea (Bekaduna)
- Pablo Suberbiola Unanue
- Belen Uranga Arakistain

3 HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA

Soziolinguistika Klusterraren 2020-2023 Plan Estrategikoa prestatzeko hausnarketa prozesua 2019. urteko azken aldera hasi eta 2020.eko ekainean bukatu zen, erakundearen Batzar Orokorrean onartu zenean.

Martxotik ekainera bitartean COVID-19ak eragindako osasun larrialdiari erantzuteko ezarri zen itxialdiak eragin handia izan zuen prozesuan eta egoera sozioekonomikoan. Garai hauetan ohikoa den ziurgabetasuna areagotu egin da eta horrek zalantzak sorrarazi zizkigun plan estrategikoaren beharrari eta egokitasunari buruz. Aurrera egitea erabaki genuen. Izan ere, plan estrategikoa tresna dinamikotzat daukagu eta inoiz baino garrantzitsuagoa izango da egoeraren arabera moldatzen joatea.

3.1 2020-2023 EPEALDIRAKO ILDO ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

1. ildo estrategikoa: BIKAINTASUNA BILATZEA

- Irizpide eta metodo zientifiko eguneratuen erabilera bermatu.
- Emaitzen kalitatean hobekuntza urratsak eman, pertsonen garapena eta prozesuen berrikuntzan eraginez.

2. ildo estrategikoa: ERAKUNDEAREN FUNTZIO PROPIOA ARGITZEA

- Erreferentzialtasuna, funtzio argiak eta aitortuak izan: Soziolinguistika Klusterra singular/bakar egiten duen hori identifikatu behar da, bere funtzioa interes talde guztiek aitortua izan dadin eta dagokienek finantzatua.

3. ildo estrategikoa: ERAKUNDEAREN ARKITEKTURA EGUNERATZEA

- Erakundearen inguruko interes taldeak identifikatu eta bakoitzaren tokia eta parte hartzea zehaztu.
- Eremu akademikoarekiko loturak sendotu, soziolinguistika esparruko ikerketan dihardugunon arteko sinergiak aprobetxatu eta optimizatzeko bidean urratsak eginez.

4. ildo estrategikoa: FINANTZAZIOA SENDOTZEA

- Aurreikusten den krisi ekonomikoak eragin ditzakeen atzerapausoak ekidin.
- Erakundeak berezkoak dituen funtzioak betetzean euskararen biziberritzean egiten duen ekarpenari dagokion egiturazko finantzaziorako bideak jorratu.
- Finantzazio iturri berriak aztertu eta landu.

5. ildo estrategikoa: ERAGINA AREAGOTZEA

- Proiektuen komunikazio-lana sistematizatu eta hobetu, besteak beste, argitalpen irizpideak berrikusiz.
- Nazioarteko ikergune eta eragileekin elkarrekintza areagotu.
- Euskal Herri osoan presentzia eta eragina bermatzeko bideak jarri: zabalpena, ekitaldiak, harremanak...

4 Euskara biziberritzeko erronkei erantzuten dieten 20 egitasmo baino gehiago

PROIEKTUAK

01. Gazteak Euskararen Eszenatokian. Erabileraren Auzia ..... 10 or.
02. Hizkuntza Aniztasunaren Mapak ..... 11 or.
03. Arrue ..... 12 or.
04. Aldahitz ..... 13 or.
05. Hizkuntza-Ohiturak Osakidetzan ..... 14 or.
06. Eusle Metodologia Hezkuntzan ..... 14 or.
07. Hizkuntza Ohiturak Eremu Afektiboan ..... 15 or.
08. Jendaurrean Erabili ..... 16 or.
09. Gipuzkoa Berdinago ..... 17 or.
10. Eralan5 ..... 18 or.
11. Tokian Tokiko Hizkuntza Aktibazioa ..... 19 or.
12. Euskara Kirolkide ..... 20 or.
13. Berbekin ..... 21 or.
14. Berba-Lapiko ..... 22 or.
15. Ahozko komunikazioaren gaineko ikastaro eta mintegiak ..... 23 or.
16. Euskararen Adierazle Sistema (EAS) ..... 24 or.
17. Hizkuntzen Erabileraren Neurketak Euskal Herriko Unibertsitatean ..... 25 or.
18. Hizkuntzen Erabileraren Neurketak ikastetxeetan eta kirol taldeetan ..... 26 or.
19. Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa. Euskal Herria, 2021 ..... 26 or.
20. Euskara eta Berrikuntza Laborategia ..... 27 or.
21. Txillardegi-Hausnartu Soziolinguistika Sariak ..... 28 or.
22. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia. Nerabe eta Gazteen Hizkuntza Errealitatea ..... 29 or.
23. Bat Soziolinguistika Aldizkaria ..... 30 or.
24. Soziolinguistika Albistaria ..... 31 or.

4.1

Gazteen ahotsa eta esperientzia entzunez euskararen erabileraren errealitate konplexua ulertzeko hurbilpena.

Gazteak Euskararen Eszenatokian. Erabileraren Auzia

Zuzendaria | Jone Miren Hernandez
Koordinatzailea | Olatz Altuna
Partaideak | Iñigo Beitia, Josu Ozaita eta Ainara Santamaria (EHU)

"Euskararen Erabilerarekin Lotura Duten Faktoreak. Udalerri Mailako Analisia" azterketa kuantitatiboan identifikatutako arreta-gunea zen gazteen erabilerarena; eta ikuspegi kualitatiboari heldu zaio, lau udalerri aztertuta: Zumaia, Pasaia (Donibane), Gernika eta Amorebieta-Etxano.

Gazteei aukera eman zaie euskararen erabilerari buruz hitz egiteko euren interes eta bizipenetatik. Euskarak duen presentzia/ausentzia aztertu nahi izan da, besteak beste, horrelako galderei erantzuten ahal izateko: Zer diskurtso dute gazteek euskararen inguruan? Zer pentsatzen duten euren egoeraz? Zer iritzi dute euskalgintzari buruz edota hizkuntza politikari buruz? non dago euskara euren eguneroko praktiketan?

Ikerketaren lehenengo fasean herriaren ezaugarriak, errutinak eta dinamikak aztertu dira, eta bigarren fasean gazteen egunerokotasuneko praktikak, hiru ardatzen arabera: ideologikoa (ideien, errepresentazioen eta diskurtsoen mundua), harremanena (adinkideen artean sortutako erreferentzia taldeak) eta identitarioa (norberarena).

http://www.soziolinguistika.eus/gazteenerabilera

Babesleak:
- Amorebieta-Etxanoko Udala
- Gernikako Udala
- Pasaiako Udala
- Zumaiako Udala
- Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA)
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

4.2

Euskal lurraldeetako hizkuntza aniztasuna ahalik eta hobekien ezagutzeko helburua duen proiektu-multzoa da, oraingoz EAEn garatu dena.

Zuzendaria | Xabier Aierdi
Koordinatzaileak | Belen Uranga, Maialen Iñarra eta Isabel Godinez
Aholkularitza teknikoa | Mikel Aiestaran eta Julen Landa (GISLAN)

Hizkuntza Aniztasunaren Mapak

Gipuzkoako Hizkuntzen Maparekin abiatu zen lan ildoa beste lurraldeetan hedatzen joan da 2020an. Bakoitza bere erritmoan eta bere ezaugarriekin.

> Gipuzkoako Hizkuntza Aniztasunaren Mapa
Gipuzkoako hizkuntza aniztasuneko webgunean eskaintzen diren datuak eguneratu dira, Biztanleriaren Erroldako (2019) datuak txertatuz. Datu hauek aurrez bilduta zeudenekin alderatu dira eta Gipuzkoako Mapak islatzen duenaren azterketa sakona egin da.

Horrek azalarazi dituen beharrei erantzuteko ikerketa kualitatiboa egin da jatorri atzerritarreko hiztunen alderdi subjektiboa ezagutzeko. Hiztun modura hiztuna/hizkuntza/hiztun-komunitatea hirukiaren nola ulertzen duten eta euskararen eta bere biziberritze-prozesuarekiko dituzten pertzepzioak, jarrerak eta praktikak ezagutzera zuzendu da ikerketa.

Sakoneko elkarrizketa eta eztabaida-taldeak egin dira honako herrialdeetako jatorria duten Gipuzkoako hainbat biztanlerekin: Maroko, Errumania, Portugal, Pakistan, Aljeria, Txina, Senegal, jatorri-herrialdean gaztelania ofiziala duten pertsonekin eta aniztasun teknikariekin.

http://www.soziolinguistika.eus/gipuzkoakomapa

> Bizkaiko eta Arabako Hizkuntza Aniztasunaren Mapak
Biztanleriaren jatorriaren gaineko datuak oinarri hartuta, Bizkaian eta Araban euskara, gaztelania eta ingelesa ez diren hizkuntzak hitz egiten dituzten pertsonen datuak bildu dira. Hiztun komunitate horien hedadura eta kopuruak bildu dira eskualde eta udalerri mailako azterketa ahalbidetzen duen txosten kuantitatibo banatan. Horrez gain, hizkuntza aniztasunaren kudeaketa egokia helburu hartuta, esku hartzerako ildoak proposatu dira.

> EAEko Hizkuntza Aniztasunaren Mapa
EAEko hiztun komunitateen azterketa kuantitatiboa egin da. Erkidego, lurralde eta eskualde mailako datuak bildu dira. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako datuen arteko alderaketak egiteko aukera eman du azterketa honek.

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia. Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
- Kutxa Fundazioa

4.3

EAEko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilerak aztertzen dituen ikerketa-proiektua.

Zuzendaria | Iñaki Martínez de Luna
Koordinatzaileak | Pablo Suberbiola, Belen Uranga eta Maialen Iñarra
Partaideak |
- Iñigo Barruso, Ibon Olaziregi eta Lucia Torrealday (EJ. Hezkuntza Saila)
- Xabier Aizpurua, Eduardo Ubieta eta Arrate Egaña (ISEI)
- Josune Zabala (EJ. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
- Iñaki Garcia (EHU)

Arrue

Batetik, EAEko D ereduko ikastetxe publikoen kasu azterketa abiatu da, euskararen erabileran lagungarriak diren ezaugarriak identifikatzen saiatzeko. 2021eko udan amaituko da azterketa. Ikastetxe guztien euskarazko erabileraren azterketa kuantitatibo-deskriptiboak osatu dira (LH4 eta DBH2), besteak beste. Hautatutako ikastetxeetan Delphi galdeketak bideratu dira eta edukien azterketa egin da. Lan hauek Covid-19ak eragindako egoerara egokitu behar izan da.

Bestetik, Ebaluazio Diagnostikoa 2019an ISEIk jasotako EAEko ikasleen hizkuntza-erabilera datuekin ED2011-2019 analisiak egin dira eta emaitzen-txostenak osatu.

Zabalpenaren atalean, bestalde, Hezkuntza Sailarekin batera *EAEko Ikasleen Euskararen Erabilera Eskola-giroan (2011-2017)* argitalpen elektronikoa prestatu da.

http://www.soziolinguistika.eus/arrue

Babeslea:
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

4.4

Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak aztergai dituen lan-ildoa da, lanketa teorikoa eta aplikazio praktikoa uztartzen dituena.

Zuzendaria eta koordinatzailea | Pablo Suberbiola
Aholkularia | Pello Jauregi (EHU)
Partaideak |
- Nekane Jauregi eta Eli Azpiroz (GFA-HBZ)
- Aitor Etxebarria, Jabi Oses, Jon Mikel Hurtado eta Sonia Isasi (EJ-HPS)
- Nerea Mandiola (Artez)
- Iratze Garmendia, Maialen Begiristain eta Nerea Ibarluzea (Ahize-AEK)
- Beñat Gaztelurrutia (Elhuyar)
- Inazio Usarralde eta Jone Urkizu (Emun)

Aldahitz

Azken urteetan sortzen ari garen hizkuntza-ohituren aldaketa errazteko tresnen eta ezagutzen sistema integraleko hiru tresnetatik, urte honetan bi landu dira nagusiki: Ulerrizketa metodologia eta Uler-saioak metodologia.

Ulerrizketa metodologia aplikatu eta baliatzeko formazio prozesua garatu da hizkuntza-aholkularitzetako eta administrazioetako langileekin. Prozesu horretan trebaturiko teknikariek Ulerrizketa esperientziak antolatu dituzte haien erakundeetan. Guztira, bederatzi esperientzia gauzatu dira.

Uler-saioak metodologiaren gaineko argitalpena argitaratu da; bertan jasotzen dira metodologiaren oinarriak eta aplikatu ahal izateko gidalerro zehatzak. Mintegi bat ere antolatu da, metodologia teknikoki zabaltzen hasteko.

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

4.5

Hizkuntza-ohituretan euskararen aldera eragiteko metodologiak Osakidetzan aplikatzeko proiektua.

Zuzendaria | Pablo Suberbiola
Aholkularia | Pello Jauregi (EHU)
Koordinatzaileak | Pablo Suberbiola eta Olatz Bengoetxea
Partaideak | Gontzal Lopez, Eguzkiñe Gezuraga, Alazne Iturriotz, Amaia Ugartemendia, Garbiñe Garai, Garbiñe Loiarte, Iratxe Bilbao, Jabi Mentxaka, Juanan Garcia, Leire Sagastizabal eta Ramon Fullaondo (Osakidetza)

Hizkuntza-Ohiturak Osakidetzan

Proiektu honen oinarria Aldahitz Proiektuko Ikerketa taldearen eta Osakidetzako Euskara Zerbitzuaren arteko lankidetza da. Aldahitzeko tresnak Osakidetzara egokitu eta bertan modu esperimentalean eta borondatezkoan aplikatzeko lanarekin jarraitu da aurten.

Guztira 9 esperientzia antolatu dira urtean zehar. Bost esperientzia *Biko Eusle* metodologiakoak izan dira: Bidania-Goiatz, Gasteiz (I), Gasteiz (II), Gernika eta Plentziako osasun zentroetan antolatu dira. Bi edo hiru lankideko talde txikietara egokituta aplikatu da, kasu horietan, *Eusle metodologia.*

Beste lau esperientzia antolatu dira *Ulerrizketa* metodologiakoak: Bidasoa, Donostia, Elgoibar eta Galdakaoko osasun zentroetan. Kasu bakoitzean hiru lankideko unitateak izan dira, ulertzaile bat eta bi mintzatzaile.

http://www.soziolinguistika.eus/hizkuntza-ohiturak-osakidetzan

Babeslea:
- Osakidetza

Osakidetza

4.6

Hizkuntza ohiturak eraldatzeko Eusle metodologia hezkuntza eremuan ikasleen euskarazko erabilera areagotzeko tresna bihur dadin aplikatzeko proiektua.

Zuzendaria | Pablo Suberbiola
Aholkularia | Pello Jauregi (EHU)
Koordinatzaileak | Pablo Suberbiola eta Olatz Bengoetxea
Partaideak |
- Iñigo Barruso eta Ibon Olaziregi (EJ. Hezkuntza Saila. Euskara Zerbitzua)
- Itziar Lafuente, Oier Zearra, Iñaki Jauregialtzo, Iñaki Biain, eta Joseba Ibarretxe (EJ. Hezkuntza Saila. Berritzeguneak)
- Agus Mujika (EJ. Hezkuntza Saila. EGB)
- Iñaki Eizmendi (Ebete)
- Ikasbidea Ikastola, Bizarain BHI eta Mungia BHI

Eusle Metodologia Hezkuntzan

Bi metodologia sortzen eta pilotatzen ari dira proiektuaren baitan, bata LHn aplikatzeko (*Jostaketan* izenekoa) eta bestea DBHrako (*Errobi* metodologia).

Jostaketan metodologiaren kasuan, 2018-2019 ikasturtean ikastetxeetan egindako lehen aplikazio pilotuan identifikaturiko hobekuntzak egin dira 2020an. Irailean abiatzeko zen bigarren proba pilotua Covid-19aren eraginez atzeratu behar izan da.

Errobi metodologiaren kasuan, lehen proba pilotua abiatu da hiru ikastetxetan: Ikasbidea Ikastola (Araba), Bizarain BHI (Gipuzkoa) eta Mungia BHI (Bizkaia). Hala ere, martxoan eten behar izan da pandemiaren eraginez.

http://www.soziolinguistika.eus/eusle-hezkuntzan

Babeslea:
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

4.7

Arabako Lautada eskualdeko lagun-talde eta bikoteekin hizkuntza-ohiturak eraldatzeko metodologiak aplikatzeko proba pilotuak.

Zuzendaria | Pello Jauregi (EHU)
Koordinatzaileak | Asier Basurto eta Pablo Suberbiola
Partaideak | Asier Lafuente (Lautadako Euskararen Komunitatea)

Hizkuntza Ohiturak Eremu Afektiboan

Eusle eta Ulerrizketa lan-munduko lankide-taldeetan aplikatzeko diseinatutako metodologiak dira. Lankideen arteko harremanek ezaugarri batzuk dituzte eta horien araberakoak dira hizkuntza ohiturak ere. Proiektu hau metodologia horien garapenerako esplorazio bide baten hasiera da. Lagun-taldeak eta bikoteek, eremu afektibo izanagatik, oso ezaugarri bereziak dituzte.

Lehenik eta behin, metodologia egokitzapenak landu dira ikuspegi teknikotik. Jarraian, proba pilotuetan parte hartzeko profil egokiak dituzten bikote eta lagun-taldeak lokalizazio eta kontaktatu dira. Horiekin bilerak egin dira esperientzietan parte hartzearen inguruko azalpenak partekatu eta zalantzak argitzeko. Onartu dutenekin formazio saioak ere egin dira metodologiaren irizpideak partekatzeko eta proba-ariketak egiteko. Urria eta azaroa artean bere hizkuntza-irizpideak aldatzeko asmoz metodologian zehaztutako rolak hartu eta aplikatu dituzte parte hartzaileek. Bitarte horretan, beren praktiken gaineko datuak jaso dira, ondorio eta emaitzetara heldu ahal izateko. Zortzi asteko esperientziak amaitutzat ematean balorazio bilerak egin dira parte hartzaileekin. Eta honekin eman da amaitutzat proba pilotu hauen lehen zatia.

Esperientzietatik hiru hilabetetara (2021eko otsaila) parte hartzaileen praktika linguistikoen gaineko datuak jasoko dira berriro eta azken emaitzen txostena landuko da. Gakoa izango da baloratzea zerk funtzionatu duen eta zer aldatu behar litzatekeen ulerrizketa eta eusle metodologiak eremu afektiboan arrakastaz aplikatzeko.

http://www.soziolinguistika.eus/node/7213

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Arabako Foru Aldundia. Euskararen Foru Zerbitzua
- Arabako Lautadako Kuadrilla

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava
ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA

4.8

Komunikazio publikoan dituzten praktikak eta esperientziak partekatuz, komunikazio hobea, eraginkorragoa, eta hizkuntza-praktika egokiagoa egiteko xedez elkarlanean diharduen mota askotako erakunde eta antolakundeen praktika-komunitatea.

Zuzendaria | Beatriz Zabalondo (EHU)
Koordinatzailea | Asier Basurto
Ikerketa-taldea | Eduardo Apodaka, Idurre Eskisabel, Irati Agirreazkuenaga eta Beatriz Zabalondo (EHU)
Praktika komunitateko kideak | AEK, Artez Euskara Zerbitzua, Bai euskarari elkartea, Donostia Zinemaldia, Donostiako Udala, ELA, Elhuyar Aholkularitza, Emun, Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Legebiltzarra, Getxoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Guggenheim Bilbao Museoa, LAB, Mondragon Korporazioa, Mondragon Unibertsitatea, Mutualia eta Sakanako Mankomunitatea

www.jendaurrean.eus

Jendaurrean Erabili

Martxan jarri zenetik urtean zehar egiten diren lan-saioetan ardazten da egitasmoa. 2020an, ordea, lan-saioen egutegia eta formatua egokitu behar izan dira. Formazioari dagokionez, bi hitzaldi jaso dituzte Jendaurrean Erabiliko kideek:

- Pilar Kaltzada: *Euskara jendaurrean, gehiago eta hobeto. Bidean ikasitakoak.* (Online)
- Idoia Camacho: *Bozeramailearen funtzioa komunikatzea da.* (EHU, Leioa)

Komunikazio publikoa egiten duten erakundeen eta hedabideen arteko harremanaren gaineko ikerketaren emaitzak zabaldu dira. Sarean, prentsan eta Bat soziolinguistika aldizkarian eman da ikerketaren emaitzen berri.

Ikerketa-ildo berri bat abian jartzea erabaki du urtean zehar praktika-komunitateak: COVID19aren pandemiak erakundeen komunikazioan izan duen eragina aztertzeko ikerketa. Kideen esperientzietan oinarriturik atera daitezkeen ikasgaiak jendaurreko komunikazioan aritzen diren beste erakundeen esku jartzea lehentasunezko helburutzat ikusi zen. Erakunde bakoitzak idatzizko memoria ariketa batean jaso du Covid19a heldu zenetik erakundean bizitakoa. Focus groupak ere egin dira, bakoitzaren bizipenak besteenekin kontrastatzeko. Jasotako informazio hori ordenatu eta aztertzearen emaitza izango dira ikerketaren ondorioak.

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

4.9

Komunikazio publikoan euskararen erabilera areagotzeko elkarrekin bidea egiten duen erakunde-multzoa.

Koordinatzailea | Asier Basurto
Partaideak | Garbiñe Mendizabal, Elene Arrazola eta Nekane Jauregi (GFA)
Gipuzkoa Berdinagoko kideak | Adegi, Basque Culinary Center, Bera-bera eskubaloia, CAF, Deustuko Unibertsitatea, Donostiako Udala, DYA, Euskal Herriko Unibertsitatea, Fagor, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kaiku, Kutxa Fundazioa, Kutxabank, Laboral Kutxa, Mondragon Korporazioa, Mondragon Unibertsitatea, Mutualia, Real Sociedad, SD.Eibar

Gipuzkoa Berdinago

Gipuzkoako 18 erakunde komunikazio publikoan egiten duten hizkuntzen erabilera gizartearen baldintzei eta beharrei egokitzeko urratsak emateko elkartu ziren, publikoki borondate partekatua azaldu zuten Gipuzkoa Berdinago adierazpenean eta ordutik bidea egiten ari dira, hizkuntza berdintasunerantz gizarteari ekarpena eginez.

Erakunde bakoitzean barne-mailako bilkura eta batzar handietan jarri zen fokua 2019-2020 ikasturtean: Batzar orokorrak, akziodunen batzarrak, bazkideen batzarrak, ikaszturte hasierako ekitaldiak... Ekitaldi hauetan parte hartzaile ugari aritzen dira maila desberdinean komunikatzen. Hizkuntza-kudeaketa aldetik konplexutasun handiko ekitaldiak izaten dira, ahozkoa eta idatzizkoa, eduki desberdinak, hainbat hizlari, hizkuntza-gaitasun aldetik profil desberdina duten pertsonak... Erakunde bakoitzak ezaugarri horietako bere ekitaldia aukeratu eta hizkuntzen kudeaketa aldetik hizkuntza-berdintasunerantz urrats praktiko esanguratsuak emateko konpromisoa hartu zuen. 2020aren lehen zatian ere horiek gauzatzen aritu dira Gipuzkoa Berdinagoko kideak.

2020ko Euskaraldia ekimenak entitateetan ariguneak sortzea berrikuntza bezala ekarri duenez, GBko kideek eredu eta traktore funtzioaren ardura hartu dute. Ekimena gauzatzeaz gain, publikoki babesa eman eta, bakoitzaren ikuspegitik, beste erakundeei parte hartzera gonbitea luzatu diete bideo-sorta baten bidez.

https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaberdintasuna/gipuzkoa-berdinago

Babeslea:
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

4.10

Enpresen eta Erakundeen euskararen erabilera berrikuntza sozialaren bidetik sendotzeko gida.

Zuzendaria | Auxkin Galarraga (EHU)
Koordinatzailea | Belen Uranga
Aholkularitza taldea | Elhuyar, Emun, AEK-AHIZE, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza

Eralan5

Eralan egitasmoaren 5. faseak berrikuntza eta erantzukizun sozialaren bidetik euskararen erabilera indartzea du xede. Xede hori lortzeko lagungarri izango den gida diseinatu da 2020n.

Gidaren bitartez, enpresa edota erakundeen kulturan aldaketak sortu nahi dira, erantzukizun linguistikoa eta gizarte erantzukizuna balioan jarriz; biak Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat eginez euskarak enpresaren kudeaketaren egituran bere leku aitortua eta sustatua izan dadin tresna izango da.

Horretarako, konpromiso estrategikoak zehazten lagunduko du gidak, interes-taldeekin harremanak izaten eta kode etikoaren baitan ekintza-plana bideratzen, beti ere euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

http://www.soziolinguistika.eus/eralan5

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

4.11

Euskararen jiran herritarren aktibaziorako gakoak eta prozesua proposatzeko lan-ildoa.

Tokian Tokiko Hizkuntza Aktibazioa

Ikerketa-proiektu honen lauzpabost urteko ikerketa-lana borobildu da aurten. Emaitzen zabalkundeari eta lan-ildo honen jarraipenari lotutakoak uztartu dira aurten.

Helburu nagusia izan da herri eta eskualdeetan euskararen gaineko aktibazioa eragiteko gakoak identifikatzea eta metodologia zehaztea, euskararen erabilerak gora egin dezan. Bi emaitza utzi ditu: herritarrak euskararen jiran aktiba daitezen, gakoak identifikatu ditu, eta balizko prozesua proposatu du.

Ikerketa-emaitza horiek hainbat euskarritan jaso dira: esku-orri batean, laburpen txostenetan (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) eta txosten teknikoan. Era berean, sare sozialetarako nahiz zabalkunde akademikorako berariazko euskarriak sortu dira (bideoak eta artikulu zientifikoa BAT Soziolinguistika Aldizkariaren 115. zenbakian). Aurkezpenak ere egin dira hainbat forotan, Gipuzkoako eta Bizkaiko euskara teknikariei eta Euskaraldia antolatzen zebiltzan herri batzordeei zuzenduak.

Azkenik, ikerketa-ildo honen jarraipenerako, Goierri gune aproposa izan ote daitekeen aztertzen hasi gara. Hau da, Goierriko hizkuntza- eta aktibazio-egoera aztertzeari ekin zaio, hizkuntza-aktibazioa eragiteko baldintzak ote dauden jakiteko. Horretarako, datu soziolinguistikoak aztertu dira, eta bertako hainbat herritarrekin eta eragilerekin elkarrizketak burutu dira.

Zuzendaria | Zesar Martinez (EHU – Parte Hartuz Institutua)
Koordinatzaileak | Maialen Iñarra eta Imanol Larrea
Partaideak |
- Joxean Amundarain (GFA- HBZ)
- Helene Armentia (Elhuyar)
- Ainhoa Lasa (Emun)
- Mikel Ozaita (Euskaltzaleen Topagunea)

www.soziolinguistika.eus/aktibazioa

Babeslea:
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

4.12

Kirol klubak euskararentzako babesgune bilakatzeko proposamen praktikoak egiten dituen ikerketa aplikatua.

Zuzendaria | J one Miren Hernandez (EHU – Antropologia Feminista Ikerketa Taldea)
Koordinatzailea | Maialen Iñarra
Partaideak |
- Nekane Jauregi eta Beñat Egues (GFA- Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza)
- Oihana Zunzunegi (GFA- Kirol Zuzendaritza)
- Jon Aizpurua (EJ- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
- Joseba Bujanda eta Endika Muruamendiaraz (EJ- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza)
- Estiñe Astorkia (Artez)
- Aritz Olagoi (Kirolean Euskaraz)



Euskara Kirolkide

2016-2019 urte bitartean garatutako "D ereduko kirola" ikerketa-ekintza proiektuaren jarraipen naturaltzat har daiteke. 2020an, nagusiki, Euskara Kirolkide ikerketa aplikatuaren ziklo berria definitu da, proiektuaren sustatzaileen eta babesle-partaideen artean.

Helburu nagusia da kirol kluba euskararen babesgune gisa definitzea, hau da, euskararentzako kirol aisialdi babestua zertan datzan zehaztea, kirol kluben ikuspegitik. Gainera, definizio hori kirol eremuan parte hartzen duten eragileekin eta protagonistekin kontrastatuko da, eta, babesgune izateko bide horretan, kirol klubentzako proposamen praktikoak irudikatuko dira.

Literatura zientifikoaren azterketa egin da eta gazteak eta euskarari buruzko oinarri teoriko-kontzeptual eguneratua osatu da, arreta berezia ipiniz aisialdiaren eta kirolaren eremuari. Era berean, ikerketa-ziklo berriko landa-lanean parte hartuko duten kirol klubak hautatu eta egitasmoan parte hartzeko proposamena luzatu zaie.

Horrez gain, "D ereduko kirola" ikerketa-ekintzan esku-hartzerako erabilitako materiala kirol klubek aplika dezaten prestatzeko bideaz egin da gogoeta. Horretarako, irailean mintegia antolatu zen alorreko profesionalekin batera, eta ekarpen guztiekin irudikatu da kirol taldeetako dinamiketan eragiteko tresna praktikoa.

http://www.soziolinguistika.eus/euskarakirolkide

Babesleak:
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

4.13

"Edozein irakasle da hizkuntza irakasle" pentsamendutik abiatuta, ikasgelan berbazko komunikazioa indartzeko egitasmoa.

Berbekin

Berbekin proiektuari 2014an eman zitzaion hasiera, eta helburutzat jarri zen aztertzea eskola-eremuetan, irakaslearen esku hartzearen bitartez euskararen erabilera sustatzeko sortzen ziren aukerak. Eta era berean, zeintzuk ziren estrategia egokienak ikasleek euskaraz gehiago eta hobeto egin zezaten.

Aurreko ikasturteetan, "edozein irakasle da hizkuntza irakasle" pentsamendutik abiatuta, ikasgelan euskararen erabilera eta gaitasuna hobetzen laguntzen duten praktika onak finkatzeko eta sistematizatzeko bidea egin da. Zehazki, 2019an indar berezia egin zen, irakasle guztiek ahozko hizkuntzaren mesedetan esku-hartzeko gakoak ezagutzeko eta ondoren, diseinatutako praktikak gela barruan inplementatzeko.

2020an xede horien gainean jarraitu da lanean, eta ikastetxeei aholkularitza eskaini zaie. Ikastetxeetako talde-motorrekin aritu gara estuki lanean. Horrez gain, proiektuko emaitzak zabaltzeko lanak hasi dira. Egitasmoan zehar eskuratutako ezagutza eskuragai jartzeko bidea diseinatu da.

Zuzendaria | Ines Garcia-Azkoaga (EHU)
Koordinatzailea | Olatz Bengoetxea
Partaideak |
- Mariaren Lagundia Ikastola
- Aranzadi Ikastola
- Ipintza Bergarako Institutua
- Bergarako Udala.

http://www.soziolinguistika.eus/berbekin

Babesleak:
- Bergarako Udala
- Mariaren Lagundia Ikastola
- Aranzadi Ikastola

Bergarako Udala
Mariaren Lagundia Ikastola
ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

4.14

Garapen metodologikoa testuinguru erdaldunetako ikasleen ahozko konpetentzietan eta irakasleen prestakuntzan aurrera egiteko.

Berba-lapiko

2017ko udazkenean, Berba-lapiko programa abiatu zen, testuinguru soziolinguistiko erdaldunetan kokatuta dauden ikastetxeetan ahozkoaren gaineko ikerketa garatzeko helburuz. Ulertuta hizkuntzen irakaskuntza erabileran oinarrituta eraiki daitekeela, testuinguru erdaldunetan ikasleen ahozko aurrerapenetan eragiten duten adierazleak bilatu nahi dira, material berria sortu eta ikasleen komunikaziorako konpetentzietan sakondu, irakasleen prestakuntzarekin uztartuta.

2020an batetik, Hizkuntza-errutinen metodologia Lehen Hezkuntzako (LH) 3. mailan frogatu da eta emaitzak aztertu dira. Bestetik, aurreikusita zegoen udaberrian LHko beheko mailetan ere ikerketa burutzea, baina, covid-19a tarteko, esku-hartze guztiak bertan behera geratu dira. Hori dela-eta, lehentasuna eman zaio ikerketa honetako emaitzak nola zabaldu antolatzeari. Era berean, LHko beheko mailetarako material didaktikoak sortzen jarraitu da.

Zuzendaria | Agurtzane Azpeitia eta Idurre Alonso (MU. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea)
Koordinatzailea | Olatz Bengoetxea
Partaideak |
- Rontegi eskola
- Muskizko ikastola
- Berritzeguneetako aholkulariak
- ELEBILAB ikerketa-taldea (EHU)

http://www.soziolinguistika.eus/berbalapiko

Babeslea:
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

4.15

Testuinguru soziolinguistiko eta helburu ezberdinen araberako prestakuntza-saioak.

Ahozko komunikazioaren gaineko ikastaro eta mintegiak

2020an hainbat formazio eman dira ahozko hizkuntzaren gaiaren baitan. Arlo honetan garatu diren egitasmoak eta oraindik martxan dauden ikerketa-proiektuak dira abiapuntu prestakuntza hauek antolatzeko orduan.

IRALEren bidez *I3 Ahozko Hizkuntzaren Lanketa Hizkuntza Normalizazioaren Altzotik Formazioa* eskaini da: ahozkotasuna ikastetxe bakoitzeko testuinguru soziolinguistikoaren behatokitik aztertuta, ahozko hizkuntza lantzeko metodologietan sakontzea du helburu, besteak beste.

Aurreko ikasturtean formazio-sorta berritzeko lana hartu zuen erakundeak. Izaera sakonagoa duen prestakuntza diseinatu zen (IRALEren baitan), azken urteetako ikastetxeetako joerak eta beharrak aintzat hartuta. IRALE programaren bitartez ez ezik, Klusterrak beste bide batzuetatik etorritako eskaerei ere erantzun die: Eleaniztasunerantz programaren baitako prestakuntzak, edo aparteko eskaera egokituak (mintegi laburrak, ikastetxeetako ahozko hizkuntzaren mapa aztertzeko saioak...).

Zuzendaria | Olatz Bengoetxea
Koordinatzaileak | Olatz Bengoetxea eta Isabel Godinez
Partaideak | Ikastetxeak, Berritzeguneak, euskaltegiak, Hizkuntza Eskola Ofizialak, aisialdiko begiraleak...

Babeslea:
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

4.16

Euskal Herriko hizkuntza-egoera sozialaren berri ematen duen adierazle-multzoa da.

Proiektuaren gidaritza | Eusko Jaurlaritza; Nafarroako Gobernua; Euskararen Erakunde Publikoa; Arabako Foru Aldundia; Bizkaiko Foru Aldundia; Gipuzkoako Foru Aldundia
Aholkularitza teknikoa | Olatz Altuna (Soziolinguistika Klusterra)

Euskararen Adierazle Sistema (EAS)

Euskararen Adierazle Sistema 2013an abiatu zen proiektua da. Euskararen egoera eta bilakaera jasotzeko eta ezagutzera emateko helburua du; gizartearen esparru desberdinetan euskarak une jakin batean duen zabalkundea eta denboran zehar izaten ari den bilakaera zehatz-mehatz azaltzeko balio du.

EASen ezaugarriak honakoak dira: titulartasun publikokoa; zerbitzu publiko iraunkorraren bokazioz eraikia; kontsentsu politiko, sozial eta tekniko ahalik eta zabalenean oinarritua; aldiro-aldiro argitaratuko duen informazioa erraz ulertzeko modukoa izango da; batez ere, kuantitatiboa, baina alderdi kualitatiboak ere izan ditzake lekua eta zentzua; euskararen lurraldeak izango ditu jomuga, ahaztu gabe egungo mundu globalizatuak muga geografikoak askotan gainditzen dituela; eta herri-administrazioaren maila ezberdinak (Gobernu, foru-aldundi, eskualde, udal...) aintzat hartuko ditu.

Soziolinguistika Klusterrak orain artean egitasmoan izan duen parte hartzeari segida emanez, 2020an ere, Euskararen Adierazle Sistema garatzeko aholkularitza teknikoa eman du. Gaur egun 45 adierazle eta 49 azpi-adierazle aurki daitezke web aplikazioan.



http://www.soziolinguistika.eus/euskararenadierazlesistema
https://www.euskadi.eus/eas/

4.17

Hizkuntza-erabileraren behaketa bidezko neurketak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait fakultatetan.

Hizkuntzen Erabileraren Neurketak Euskal Herriko Unibertsitatean

Ikerketa UPV/EHUk euskararen erabilera sustatzeko aurrera daraman "Aktibatu" proiektuaren baitan kokatzen da. Hain zuzen, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak zenbait fakultatetako eremu ez-formaletako hizkuntzen erabilera behatzeko egitasmoa jarri zuen abian 2017-2018 ikasturtean. Ordutik hona, hamar fakultatetako euskararen erabilera behatu du Soziolinguistika Klusterrak.

2020-2021 ikasturteko egitasmoan, Donostiako eta Bizkaiko Campusetako behaketa-lanak areagotu ahal izan direnez, zazpi fakultate berritan egin da datu-bilketa: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Bizkaiko egoitza nagusia nahiz Arabako eta Gipuzkoako atalak), Bilboko eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolak, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Leioako egoitza) eta Arkitektura Goi Eskola Teknikoa (Donostian).

2020. urte honetan, erronka izan da hizkuntzen erabileraren neurketak egiteko metodologia COVID-19 birusaren pandemiak fakultateetan sortutako egoera berri(eta)ra egokitzea. 2020-2021 ikasturtearen hasieran UPV/EHUn aurrez aurreko irakaskuntzaren aldeko apustua egin zenez gero, behaketa-lanak bideratzeko aukera egon da. Fakultate bakoitzean, ordea, birusaren zabalkundea ekiditeko hartutako neurriak kontuan hartuz diseinatu behar izan da datu-bilketa.

Koordinatzaileak | Maialen Iñarra eta Belen Uranga
Partaidea | Euskal Herriko Unibertsitatea

Babesleak:
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Donostiako Udala
- Bizkaiko Foru Aldundia

4.18

Eskoletako jolastokietan eta kirol-taldeen entrenamenduetan egiten den hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzen duten ikerketak.

Zuzendaria | Olatz Altuna

Hizkuntzen Erabileraren Neurketak ikastetxeetan eta kirol taldeetan

Hizkuntzaren erabileraren kale-neurketak oinarri hartuta hainbat neurketa egin dira kalea ez den beste espazio batzuetan, esate baterako, ikastetxeetako jolastokietan eta kirol entrenamendu eta partidetan.

Haur eta nerabeen hizkuntza erabilera neurtu eta kuantifikatzeko interesa adierazi digute hainbat udalek eta erakundeek. 2020an bi neurketa mota egin dira; bata, Oiartzungo Haurtzaro ikastola eta Elizalde herri eskolako jolastokietan eta sarrera-irteeretan, eta bestea, Arrasateko hainbat kirol-taldeetako entrenamenduetan (lau kirol-mota aztertu dira: saskibaloia, futbola, gimnasia erritmikoa eta errugbia).

Neurketa horiez gain, beste bi ikerketa zabal abiatu dira 2020an: UEMAko herrietako 30-35 ikastetxeetako jolastokietako neurketak eta Gipuzkoako hainbat herrietan Eskola Kiroleko taldeen neurketak.

Babesleak:
- Arrasateko Udala
- Oiartzungo Udala
- UEMA
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
  Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

4.19

Kalean egiten den hizkuntzen erabilera behaketa bidez jaso eta kuantifikatzen duen ikerketa.

Zuzendaria | Olatz Altuna
Koordinatzaileak | Maialen Iñarra eta Isabel Godinez

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa. Euskal Herria, 2021

Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale Neurketaren VIII. edizioa egingo da 2021eko udazkanean. Aurten hasi gara landa-lanaren prestaketarekin. Batez ere, Neurketa berriak ekarriko dituen berrikuntzak antolatzen aritu gara. Bi izango dira berrikuntza nagusiak: batetik, udalerrien laginketa eraberrituko da, datuak eremu gehiagotan izan daitezen adierazgarri eta baliabideak ahalik eta eraginkorren. 2020an laginketa berri horretarako datu-basea prestatu da. Bestetik, datuak telefono mugikorrean jasotzeko aplikazio berria sortu da.

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

4.20

Gizartearen etorkizuneko ezaugarri eta beharrei erantzuteko asmoz, hizkuntza biziberritzearen ikuspegitik proiektu pilotu esperimentalak sortuko lituzkeen berrikuntza sozialerako laborategi kolaboratiboa diseinatzeko prozesua da.

Euskara eta Berrikuntza Laborategia

Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko eragileekin gizartearen etorkizuneko erronka nagusiei berrikuntzatik erantzuteko garatzen duen Etorkizuna Eraikiz ildoaren barruan, horiei euskaratik begiratu eta erantzungo dien laborategia sortzeko prozesua martxan dago 2018aren amaieratik. "Euskalgintzaren berrikuntza palankak" prozesuan parte hartutako eragileek ideiak eta proiektu posibleak proposatu zituzten, eta Elhuyar, Emun, Langune eta Soziolinguistika Klusterrak elkarlanean proposatutako "Euskararen berrikuntzarako laborategi kooperatiboa" hautatu zen garatua izateko.

Ordutik, hainbat urrats eman dituzte laborategia diseinatu, osatu eta martxan jartzeari begira. Euskararen eta berrikuntzaren inguruan lanean diharduten pertsona, enpresa, elkarte eta denetariko eragileekin harremanaren bidez ikuspegiak aberastuz eta proiektu eraginkor eta bideragarri bihurtzeko urratsak emanez.

Marka estrategia, laborategiaren metodologia eta gobernantza definitzeko prozesuak eraman ziren burura lehen fase batean. Bigarren fasean, berriz, laborategiaren harreman sareaz.

Hiru arlo horien definizioan sakonduta eta prozesu osoan zehar jasotako iritzi, ikuspegi eta informazioekin euskararen berrikuntzarako laborategi baten proposamena landu dugu.

Zuzendaria | Goiatz Oiartzabal
Koordinatzaileak | Imanol Larrea eta Asier Basurto
Gobernu Batzordea |
- Garbiñe Mendizabal, Joxean Amundarain, Sebas Zurutuza eta Iker Nocedal (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Olatz Olaso (Emun)
- Jon Abril (Elhuyar)
- Lohitzune Txarola (Langune)
- Imanol Larrea eta Mikel Irizar (Soziolinguistika Klusterra)

Talde Teknikoa |
- Ihabar Arriaran eta Maite Inda (Emun)
- Nerea Zubia (Elhuyar)
- Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)

Babeslea:
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

4.21

Euskal soziolinguistikaren eremuko hausnarketa eta ikerketa lanen leihaketa.

Zuzendaria |
Iñaki Martinez de Luna
Koordinatzailea |
Asier Basurto

TXILLARDEGI-HAUSNARTU Soziolinguistika Sariak

2008. urtean sortu ziren Hausnartu soziolinguistika sariak, eta 2019an, EHU/UPVrekin elkarlana abiatzearekin batera, Txillardegi –Hausnartu Sariak izatera pasa ziren.

Lehiaketaren helburua euskal soziolinguistika teorikoaren eta metodologikoaren garapena da; esparru horretako ikerlarien lana bultzatzea, eta beste zenbait esparrutakoak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea (soziologiatik, hizkuntzalaritzatik, zientzia politikoetatik, psikologiatik, antropologiatik edota komunikazio-zientzietatik, esaterako).

> **Lehen saria:** *Ongi etorri. Euskaltzaletasuna sendotzeko ekosistema komunikatiboa.* Eneko Gorri Gantier
> **Bigarren saria:** *Euskara Tolosaldean: kartografia bat.* Garikoitz Goikoetxea Etxeberria
> **Hirugarren saria:** *Tokiko komunikabideak hizkuntza biziberritzeko eragile: Ipar Euskal Herriko eta Yukatan penintsulako hiru kasu-azterketa apreziatibo.* Ainhoa Morón Lasa eta Beñat Garaio Mendizabal

Txillardegi HAUSNARTU SOZIOLINGUISTIKA SARIAK

Saridunen iragarpena sarean egin da aurtengoan, ohiko sari-emate ekitaldia antolatzeko zailtasunek baldintzatuta. Egileek bideo-aurkezpen laburretan eman zituzten ezagutzera euren lanen edukiak eta Bat Soziolinguistika Aldizkariaren 117. zenbakian argitaratu dira.





http://www.soziolinguistika.eus/txillardegi-hausnartu

Babesleak:
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Gipuzkoako Foru Aldundia

4.22

Euskararen biziberritzearekin loturiko soziolinguistikaz hausnartzeko, eztabaidatzeko, ezagutza partekatzeko eta proposamen berriak egiteko urteroko zita nerabe eta gazteen hizkuntza-errealitatearen gaia lantzera bideratu da 2020an.

Koordinatzailea | Asier Basurto

Euskal Soziolinguistika Jardunaldia. Nerabe Eta Gazteen Hizkuntza Errealitatea

Euskal Soziolinguistika Jardunaldien hamabigarren edizioa urriaren 28an izan zen. Gazte eta nerabeen esparruan euskararen biziberritzearen ikuspegitik aurrera eramaten ari diren ikerketa, berrikuntza eta garapen proiektuak ezagutu eta lantzeko aukera eskaini zuen. Gaiaren ikuspegi zabala partekatuta, aurrera begirako erronka nagusien gainean hausnartu eta eztabaidatu zuten ikerlari, teknikari, irakasle eta bestelako parte hartzaileek. Hizlariek Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatetik jardun zuten eta gainontzeko parte hartzaileek streaming bidez jarraitu zuten jardunaldia.

09:15 Sarrera
09:30 Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia
Jone Miren Hernandez (EHU) eta Olatz Altuna (SL Klusterra)
10:30 Eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa
Iñaki Martinez de Luna eta Maialen Iñarra (SL Klusterra)
11:15 Atsedena
11:45 Ahozko komunikazioa euskararen ezagutza baxueneko inguruneetako ikastetxeetan
Agurtzane Azpeitia (HUHEZI-MU) eta Olatz Bengoetxea (SL Klusterra)
12:30 Nerabe eta gazteen puzzlea osatzen I
Bertso-eskolak sozializazio eremu gisa – Miren Artetxe (EHU)
Kirol-taldeak erabilera gune – Jaime Altuna (EHU)
Ludikotasuna eta emozioetatik eragiten – Pulunpa- Euskal Herriko Ikastolak
Gazteei begira: usteetatik jarreretara – Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
Euskararen erabilerara espedizioa – Euskarabentura
14:00 Bazkalordua
15:00 Nerabe eta gazteen puzzlea osatzen II
Lidergoetatik eragiten – Eusliderrak- AEK-Ahize
Aisialdiaren gakoa – Euskaltzaleen Topagunea
Soziolinguistika lantzen ikasgelan – Emun
Unibertsitateko ikasleen hizkuntza-profilak eta erronkak – HUHEZI
16:00 Mahai-ingurua: norantz? zein bidetatik?
Jone Miren Hernandez (Euskal Herriko Unibertsitatea), Jone Goirigolzarri (Deustuko Unibertsitatea) eta Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)
17:30 Amaiera

http://www.soziolinguistika.eus/jardunaldia

Babesleak:
- Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Mondragon Unibertsitatea
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

4.23

Euskararen biziberritzearen soziolinguistikari buruz, euskaraz argitaratzen den aldizkari zientifikoa, akademikoa eta dibulgatzailea.

Zuzendaria | Iñaki Martinez de Luna
Koordinatzaileak | Belen Uranga, Isabel Godinez eta Maialen Iñarra
Argitalpen Batzordea |
- Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitateko irakaslea)
- Maria-Jose Azurmendi (EHUko katedraduna)
- Jone Miren Hernandez (EHUko irakaslea)
- Lionel Joly (Euskaltzaindia)
- Inma Muñoa (Ikastolen Elkarteko kidea eta irakaslea)
- Beñat Garaio (Soziolinguista)
- Paula Kasares (Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea)
- Eneko Gorri (Biarritzko Herriko Etxeko euskara teknikaria)

BAT Soziolinguistika Aldizkaria

1990. urtetik Bat aldizkariak artikulu akademikoak eta zientifikoak argitaratzen ditu; ikerketan oinarriturikoak, baita ikerketa-aplikazioko eredukoak ere. Gainera, Euskal Herriko esperientzietako dibulgazioko lanak ere biltzen dira, baita unibertsitate-mailako ikastaro, jardunaldi edo topaketetako hitzaldietan oinarritutakoak ere.

Gai monografiko bati eskaintzen zaio zenbaki bakoitza, baina, zenbakia osatzeko aldi bakoitzean, beste gairen bati loturiko artikulu batek edo bik tokia izan dezakete.

Honako hauek argitaratu dira 2020. urtean:

- Nazioarteko hizkuntzen garapen-lankidetza (114)
- Hizkuntza-komunitateaz (115)
- Euskarazko komunikazioa 2020ko hamarkada hedabideetan (116)
- Txillardegi-Hausnartu Sariak 2020 (117)

2020. urtean, HABE Liburutegiko kideei esker, nazioarteko soziolinguistika argitalpenak ere txertatu dira BAT Aldizkariaren zenbakietan; zehazki, "Soziolinguistikaren munduko leihoa" atalean, "Liburu berri hautatuak soziolinguistikaz" azpi-atala sortu da, eta bertan jaso dira, zenbaki bakoitzeko, lau libururen fitxa teknikoak, laburbildumak eta oinarrizko aurkibideak.

http://www.soziolinguistika.eus/bat

Babesleak:
- Eusko Jaurlaritza. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

4.24

Bertako eta nazioarteko soziolinguistika albisteak, hitzorduak eta argitalpenak biltzen dituen hamabostekari digitala.

Soziolinguistika Albistaria

2016. urtean, zaintza teknologikoa sistematikoki egiteko prozesua eta tresnak definitu zituen Soziolinguistika Klusterrak. Sistema horren bidez, soziolinguistikaren, hizkuntza gutxituen eta euskararen biziberritzearen gaineko jarduera zientifikoak, akademikoak eta sozialak jarraitzen dira. Egun, 100 iturri baino gehiago baliatzen dira intereseko informazioa biltzeko.

Jasotako informazio hori Soziolinguistika albistariaren bidez helarazten diogu euskal soziolinguistika komunitateari. Funtsean, hitzorduez, irakurgaiez, eragileez edo ideiez elikatzen dugu Soziolinguistika Klusterraren inguruan lanean diharduen sarea. Gaur egun, 870 harpidedun ditu albistariak.

Hain zuzen, hamabost egunean behin, bertako eta nazioarteko soziolinguistikari buruzko 15 albiste inguruko bilduma zabaltzen dugu posta elektronikoz, sare sozialen bidez eta webguneko http://soziolinguistika.eus/albistaria atalean. Dagoeneko 90 zenbaki hedatu dira; 2020. urtean, zehazki, 69.etik 90.era.

Halaber, 2020an, Soziolinguistika Klusterraren zaintza sistema bera ebaluatu da, albistariaren kudeaketa, kalitatea eta zabalpena hobetzeko asmoz.

Koordinatzaileak | Maialen Iñarra eta Asier Basurto
Partaidea | Leire Muxika (EMUN)

http://www.soziolinguistika.eus/albistaria

Babeslea:
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

5 LANKIDETZAK, HARREMANAK ETA BESTELAKOAK

Ez gabiltza bakarrik bide honetan

5.1 PROIEKTUEI LOTUTAKO HITZALDI ETA AURKEZPENAK:

2020/06/11 Tokian-tokiko hizkuntza aktibaziorako Euskaraldiko herri-batzordeen foroan. (Online)

2020/06/18 Tokiko hizkuntza-aktibaziorako ikerketaren emaitzen aurkezpena UdalEkin foroan (Gipuzkoako euskara zerbitzuak). (Online)

2020/06/24 Oiartzungo ikastetxeetan hizkuntzen erabileraren neurketen emaitzen aurkezpenak udal ordezkariei, ikastetxeetako arduradunei, irakasleei eta gurasoei. Haurtzaro ikastola eta Elizalde Herri Eskola. (Online)

2020/06/30 Tokiko hizkuntza-aktibaziorako ikerketaren emaitzen aurkezpena Alkarbide Bilgunean (Bizkaiko euskara zerbitzuak). (Online)

2020/07/09 Ahozkotasunaren eta ahozko kultur sorkuntzen didaktika. EHUren Uda Ikastaroa. Hitzaldia: Ahozko komunikazioan eragiteko aukerak aztertzen hezkuntza arautuan

2020/09/04 Hizkuntzen kaleko erabileraren neurketa Bortzirietan. Emaitzen aurkezpena eta irakurketa partekatua. (Harriondoa, Lesaka)

2020/09/18 Eusko Jaurlaritza eta Elhuyarren gidaritzapean SPRIko industria arloko enpresen INDEUS egitasmoko kideei hitzaldia Hizkuntza-gobernantza eta Jendaurrean Erabili praktika komunitatearen inguruan. (Online)

2020/10/20 Ikastetxeetan hizkuntza-erabileraren neurketak egiteko formazio saioa UEMAko teknikarientzat. (Online)

2020/11/10 "Ulerrizketa tailerra" Formazio saioa EHUren eskariz. (Leioa)

2020/11/20 Ikastetxeetan hizkuntza-erabileraren neurketak egiteko formazio saioa Plataforma per la Llenguako kideentzat. (Online)

2020/12/5 Kirol jardueretan hizkuntza-erabileraren neurketak egiteko formazio saioa UdalEkin foroan (Gipuzkoako euskara teknikariak). (Online)

2020/12/10 Euskararen Adierazle Sistemaren webgune berriaren aurkezpena administrazioko, unibertsitateko eta euskalgintzako erakundeetako ordezkarientzat. (Online)

5.2 BARNE-KOMUNIKAZIOA ETA FORMAKUNTZA

2020/03/02 Design Thinking metodologiaren gaineko barne-mintegia Goiatz Oiartzabalekin.

2020/04/30 Euskara bidegurutzean liburuaren gaineko barne-mintegia Kike Amonarriz idazlearekin.

2020/06/26 Gazteak euskararen eszenatokian ikerketaren gaineko hausnarketa saioa barne-mintegian, Jone Miren Hernandez eta Olatz Altunarekin.

2020/10/13 Gazteen hizkuntza-errealitatearen gaineko barne-mintegia.

5.3 LANKIDETZAK ETA PARTAIDETZAK

- Garabide Elkarteak eta Sisariy kitxuen antolakundeak gidatutako Kitxuaren Biziberritze Estrategietako Lehen Nazioarteko Ikastaroan "errealitate soziolinguistikoaren azalpenerako zenbait gako" moduluaren zuzendaritza. (Ibarra, Ekuador)
- Aztiker Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskariz egiten ari den Euskarari buruzko ikerketen direktorioan Soziolinguistika Klusterraren baitan gauzatutako proiektuen informazioa txertatu da.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren plan estrategikoa sortzeko prozesuan ekarpena egin zuen Soziolinguistika Klusterrak elkarrizketa batean parte hartuz.
- Hizkuntza Gutxituetako Gazteen Gasteizko 3. Topaketaren Batzorde Akademikoan parte hartzen du Soziolinguistika Klusterrak.
- Euskal Herriko Unibertsitateko Munduko Hizkuntzen Ondarearen Unesco katedraren aholkulari

6

BALANTZE EKONOMIKOAREN LABURPENA

Bazkide, lankide, finantzatzaile eta erabiltzaileekin gardentasunez jokatuz 2020ko jarduera ekonomikoa laburtzen duten datu batzuk eskaintzen dira jarraian.



- Pertsonal Gastua
- Gastu Orokorrak
- Proiektutetako Kanpo Zerbitzuak

GASTUAK

620.533 €



- Eusko Jaurlaritza (HPS eta Hezkuntza Saila)
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Fakturazioa
- Bazkideak eta harpidetzak
- Erakunde pribatuak

SARRERAK

625.372 €

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko ikergunea

URTEKO TXOSTENA 2020